Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inoxenxio Epelde Etxabe

Zarautz, Gipuzkoa (1902-1993)

Aurkibidea

Biografia

Anaia Hilario Epelderekin batera, XX. mende hasieran "baineru" lanetan aritutakoa. Geroago, toldero lanetan aritu ziren hainbat urtez. Berak eta bere senideek sortu zituzten gaur egun hain ezagunak diren Zarauzko toldoak, eta banaka-banaka egin zituzten hondartzako aulki eta banku guztiak. Gizon alaia eta hizlaria, "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean. Berekin batera, beste hiru hiztun ere azaltzen dira grabazioan: Emiliano Alberdi, Mariano Izeta eta Prontxio Azpiazu.

Zintak

ZAR-111

- **Proiektua**: Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loiola Harizti, Agurtzane
- **Data**: 1987-01-01
- **Iraupena**: 23 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

- **Transkribatzailea(k)**: Loiola Harizti, Agurtzane

Pasarteak

1. Lehengo jendearen ohiturak eta janzkera

- **Erref**: ZAR-111/002
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:00:40. **Bukatu**: 00:03:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Inoxenxioren aitona izan zen balea Zarautzen harrapatu zutenetako bat. Lehen nola janzten ziren azaltzen du. Hondartzan zer janzten zuten eta nola moldatzen ziren arroparekin azaltzen dute.

Transkripzioa
- (I) Nere aurretikan nola ama eta itxekuak baiñerotzako zea hori zuen, asunto hori zuen, lenotikan, ba, hartaka nik jarraitu nun beste urte askuan. Nere aitona’re baiñerua zan… aitona Etxabe Roke… balia Zautzen harrapatu zuna. Fetxa ta bazekiyek hoyek. Aztu zaizkitek nei. Batzuk izaten dituk igeiyan ondo dakiyenak: inportikan gabe aurrea jun deyela nahi baldin badu, ta nahi baldin badu ito dayela. Baiña, baiña bestelako guztiyai lagundu: batzui lepoaiño, beste batzui honeaiño… lagundu eta igeiyan eakutsi ez baldin bazekiyen. Zian jantziyak, baietazko eo galtzak…
- (M) Franela o zer zan… hik ez al dakik tela hayek ze izena zuen? Sastria haiz, ba, hi!
- (E) Ez dakit ba!
- (I) Baietazko eo holako galtzak zian. Eta geo txaketa, sira, geuk eindakuak itxian; oliyua, aseite linasa ematen giñun. Eta ez zian txukun-txukunak, baiña behintzat hayek zian gure jantziyak.
- (M) Ba, baiñutik erteeran, gure baiñista hoyek, ba, etortzen zian lepoaiño tapatuta kaxeta bitartian, zeatikan jendiak ez zitun, ba, ikusi bihar…
- (I) Bai, bai, bai, egiya dek gaiñea hori…!
- (M) Hortako, gaiñea, kaxetan sartzeako, bazuen balde bat, egurrezko baldia, ura ekartzen ziyoena bidian hondarrakin hankak zikinduta ekartzen bazituen; eta ur hortan sartu, ta geo kaxetea sartzen zian.
- (I) Aaaa, hori dek!
- (M) Oso txukunak zian, e?
- (E) Baiño emakumiak bikiniyakin orduan’e, baiño ez uaingo bikiniyak e? Dana ageri hori ez… Txaketa bat, haundiya, iya belauneaiño, eta azpitik galtzak txorkatilleaiño. Buruan kapera bat illiak ez bustitzeko, eta baiñotik urteeran baiñeruak o baten batek zea jarri… albornoza ez… kapa moura zea bat, toailla mouko haundi bat, eta harekin ya hotzak hoztu ez dein kaxeta sartu arte.

2. Hondartzako aldagelak

- **Erref**: ZAR-111/004

- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:04:44. **Bukatu**: 00:07:19
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Hondartzako aldagelei buruz hitz egiten dute, eta nola jasotzen zituzten marea igotzen zenean.

Transkripzioa
- (M) Ba, kaxeta habek, bakizue, kaxeta habek, ba, urertzeaiño juten zian maria bihian zeonian, noski, ba, beheraiño...
- (I) Bultza ezkeo...!
- (M) Eta maria goya gora zetorren bezela, kaxetak'e jaso iten zian gora, jaso iten zian, eta zituen pirrillak eo erruedak...
- (P) Errueda astun batzuek...
- (M) Astun batzuek, zabalak, hondarrian ez sartzeko egurrakin iñak, ba, zabalak...
- (P) Beinte zabaleko o hola...
- (M) Ba, horrelako zabalak bai, horrenbesteaiño, beinteaiño ez zian izango beiñepin han nunbait; eta, ba, hayek, ba, goraiño jasotzen zian; eta baita maria goratzen zanian arranpalak bazeben, eta goiko malekoia deitzen zakon koxka horrei. Uain malekoi ederra dakau guk, orduan ez bezelakua, zeatik ordutikan asko zabaldu da, asko...! Baiño gora jasotzen zian hayek...
- (I) Itxasuak agintzen zunian!
- (M) Eaa... hori dek arrazoya!
- (I) Itxasuak agintzen zunian, zergatik itxasua arratsaldian, hi! Paeteaiño juxtu-juxtu aillatuko baldin bada, eta bitartian edo ekarri in baldin baik, haunditu in baldin badu, itxasua kaskartu in baldin badu, gaiñea juten zan, eta guk... zeara... kaxetak goruo.
- (E) Arranpan behetik gora're Bixkonde kaleaiño.
- (I) Bai, iya zearaiño...
- (P) Arranpalan behetik gora.
- (E) Bixkonde kaleaiño [...].
- (I) Altunaneko dendaiño iya.
- (M) Gaiña hori bakarrik ez... Oso detaille polita zan, kaxetak'e pintatuta zeuen, been koloriak zituen baiñeruak, been bandera balue bezela...
- (I) Bakoitzak bere koloria!
- (M) Bakoitzak bere koloria: Paulinonak zuen zuriya, ta...
- (P, E) Horiya, horiya ez al zan ba!
- (M) Horiya ta gorriya al zuen hayek? [...] gorriya. Ba! Ez naiz goatzen oain ondo detaille hori, baiño Txilikunekuak zuen txuriya ta urdiña,
- (I) Urdiña.
- (M) Eta...
- (P) Paxkualitak'e baetz uste det.
- (M) Paxkualita baiño lenuo dao Etxabe. Zuenak Etxabe hituan!
- (I) Epelde Etxabe, bai... Balentin Etxabe.
- (M) Bai, Etxabenekuak ze kolore zuen...
- (E) Berdia, orlegi, zea, orlegiya! Orlegiya, berdia!
- (I) Berdia, bai! Baiña geo panelak, ordia, horrelakuak o, zuriyak...
- (M) Noski, panelak zuriyak eta...
- (I) Armazoia berdia.
- (M) Eta Paxkualitanak'e bazuen, ba, been koloria...
- (Denak) Urdiña! Urdiña zuen hayek!
- (M) Urdiña, berriz, hayek! Aitu al dezu e?

3. Udatiarrak eta haientzako zerbitzuak

- **Erref**: ZAR-111/006
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:08:04. **Bukatu**: 00:10:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Udatiarrak iristen zirenean, herritarrak borrokan aritzen ziren udatiarrak haien etxeetara joan zitezen. Getariara bidean zeuden "Baños Calientesei" buruz hitz egiten du. "La Perlak" ere nola funtzionatzen zuen azaltzen dute.

Transkripzioa
- (E) Hayek juten hituan estaziyoa, beraneantiak bazitxakiyen, bakoitzak bazitxakiyen zein famili eta noa... Itxiak geyenak beak alkilatzen ziyen hayek... alkilatu beak! Eta hayek bazitxakiyen noiz etorriko zan, ta zein pamili ta dana. Eta ertetzen zian, estaziyuan eoten zian baiñerak beti, e? Eta jeixten zan maletakin, ta han bat lotzagabe samarra zan, zea hori, este, Paxkualita, Joxe Mari...
- (I) Lotzabiena!
- (E) Lotzabia. Eta beria izan ez hartzen... “Hi! Hori neria dek!”, eta bestiak eta han dia, zea, etortzen zana bean hanka onduan gelditzen huan, tente gelditzen huan, ze arrayo ote zan; bestiak erdi burrukan hantxe biyak, batak tira ta bestiak tiraka maletai, ta hola! Askotan.
- (M) Ba, Zarautzen garai hartan bazian, ba, “Baños calientes y duchas” ta, eta jendia kanpotik eta etortzen zan, itsasoko ur berua baizan; eta hor, Getai bidian, “Baños calientes” xemenekua...
- (P) Patxi, Patxi Xeme...
- (M) Xemenekua zan, Inoxenxio uste det zala. Inoxenxio, bai.
- (I) Han’e bahuan Inoxenxio ta...
- (M) Aita, aita, aita ta ama... Ba, han, itxe hartan ura jasotzen zuen bonbakin, eskuz jasotzen zuen, bonbakin ura gora. Ta goyan, ba, bazeuzken bere kalderak eta ura berotzeko; eta hantxe, hiru, hiru kuarto, hiru kuarto zeuzken been baiñerakin. Ta hara juten zan jendia, “Baños calientes” hoyek hartzea,
- (I) Reuma zakaelako.
- (M) Reuma o zea zakaela ta, meikuak eta aginduta, ta...
- (P) Kanpotik etortzen zala jendia.
- (M) Geo, La Perlan’e bazan beste bat; eta hayek ura jasotzeko, kostan erdiyan han zeuken alkatxofa bat, osea, nola esango det, ba? Ba, ura hartzeko ta maria goyan zanian betetzen zan deposito bat, La Perlan, La Perlan bazuen han hondar baztarrian deposito haundi bat; eta hura betetzen zan urez maria goyan zanian. Eta geo jasotzen zuen ura, ur hura jasotzen zuen gora, berotu, ta “Baños calientes de agua de mar”, e? Ba al dakizu?

4. Erregea Zarautzen

- **Erref**: ZAR-111/007
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:10:38. **Bukatu**: 00:12:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Alfonso XIII.a Zarautzera etorri zenekoa kontatzen dute.

Transkripzioa
- (E) Udazaliak Donostiyan eukitzen zituzten bean itsason jolasak eiteko balandruak. Balandruak dia ontzi batzuek bajuak, baiño oihal luze-luze batekin, eta haiziakin ibiltzen dianak. Eta urtian, ba, bitan o hirutan, ba, iten zuen etorrera, o Getaira o itsaso ona zeola, Zarauzko Ailla punta pareaiño. Ta gogoratzen naiz goiz batian, ba, gu mutikoskorrak garai hartan, ba, betzirak ezkeo moilla inguruan ibiltzen giñan jolasten... pilla! Herriko hondartzan baiñeruak ez ziguten lagatzen arrimatzen'e hondartza e? Ta moilla. Gazte jende, mutikoskor geyen moillan. Ta han gaudela, etorri da balandro hori, gerrako barkuan lenbizi, eta geo aillatu dia horrea, Ailla punta muturrea. Eta han, gerrako barko batian, txalupa batian sartu eta moillan desenbarkatu zun beste bien artian, beste bi geyokin, erregia: Alponso hamabigarrena. Eta prosesiyo batian juten dan bezelaxe, mutikoskorrak bi aldetan ra-ra-ra zeaiño... Gran Hoteleaiño. Gran Hotelian bazkaldu, aldatu o in bihar zuena iteko, Gran Hoteleaiño beakin jun giñan, eta argazkiyak atea, ta izparringietan ta atea zian argazkiyak orduan lelenak.
- (M) Oantxe gauza bat esan dek gaxki!
- (E) Ze ba?
- (M) Alfontzo hamabigarrena esan dek! Hamahirugarrena, ordia!
- (P) Ba, ba, bai! Kontuatu nauk neu're!
- (I) Baita ni're!
- (M) Hamahirugarrena huan, ordia! Honek esan du hamabigarrena, ta zan hamahirugarrena.
- (P) Bai, ni're kontuatu nauk, baiña ixilik geatu nauk.

5. Udazaleen kotilioiak

- **Erref**: ZAR-111/010
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:15:47. **Bukatu**: 00:17:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:
Gau batzuetan udazaleek kotilioiak egiten zituzten jauregietan.

Transkripzioa
- (E) Egiten zan, ba, jende horrek, ba, gau batian, palaziyo batian, jauregi batian, hurrenguan bestian, bakoitzak beak zeatuta, moldatuta, "Cotillón"! Jantziyak erdiyak papelezkuak o...
- (M) Kotilloiak e?
- (E) Eta batzuek era batea, "Carnaval" bezela. Gazte jendia, gazte sasoikua, pixkat dantzatu ta hantxen, beren herriko jendianetikan aparte pixkat, bean artian ta [...]... Hamentxe, urtian, ba, udaran, ba, bi o hiru bider ingo zian, bi o hiru txaletetan ingo zan. Ta herriko jendia, ba, nola jantzita nola juten zian, hantxe beira hayei nola nola zijoazten ta...

- (M) Akordatzen nauk batian kotilloi haietako bat Santillananeko palaziyuan...
- (E) Zeiñena?
- (M) Zeiñena? Ba, kotilloia o bai... hoitakua izan ber ziyan, “del príncipe heredero de Fustemberg”. Goatzen al haiz? Eon hai pixkat! Eon hai pixkat! Eon hai lasai. Ze! Ze! Fustemberg huan! “Príncipe heredero del Fustemberg”!
- (E) Oneloe! Ze arrayo!
- (M) Ez, ez, ez!
- (E) Ze ezetz!
- (M) Oneloe baiño leno. Fustemberg o zea hori... Ta, hala, batian, hortxe dabiltzala, festa hortan dabiltzala: “Viva el príncipe heredero de Fustemberg!” batek, ta “Y su xofer!” bestiak. Hi, “tócate”... Zer dizkiyok! Hori’re pasadizo bat da...

6. Dukearen katuari buruzko anekdota

- **Erref**: ZAR-111/011
- **Iraupena**: 0:04:28. **Hasi**: 00:17:28. **Bukatu**: 00:21:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Txakur batzuei buruzko anekdota kontatzen dute. Txakurrek dukearen katu bat hil zuten, eta dukeak isuna jarri zion txakurraren jabeari.

Transkripzioa
- (M) Bakiye, Narrosenian, Narrosen hituan, zituen bi txakur: bat “Pelana”, ta bestiak nola izena zun...
- (E) “Troski”!
- (M) Troski! Troski Pataki Paloki! Holako izen batzuek zituen, txakur txikiyak zian, eta juten zian, ba, Narrosenetik Gran Hotelea, digo... zeara, golea zuzen-zuzen juten zian “Marqués de Narros” ta “Conde Real” ta hoyek, golea juten zian.
- (E) Nola? Nola juten zian...
- (M) Ta golea.
- (E) Hoyek kotxia baziyen geo!
- (M) Kotxe batzuek... Bai, bazituen!
- (E) Ermiarma, ermiarma.
- (I) Zer zuen?
- (M) Forrak! Ford! “Coches Ford”!
- (E) Ez, ez, ez! Zaldiyakin ta ermiarma!
- (M) A bueno! Zaldiyakin!
- (E) Zaldiyakin! Holako errubera haundi-haundi batekin kotxe bat “echando chispas” juten zan, zaldi.... Xallan [...]. Donostira... nik ez nun ezautu Donostiraiño juten, baiño golea kotxe, zea, ermiarma horrekin. Donostira ez dakit zenbat denboan juten ziala, zea, Zauztikan. Hayek gabian ibiltzen hituan, eta eunez lo iten ziyen, ordu bata alde arte lo, ta gabian goizalde arte Donostiyan, ta Donostitik etorri...
- (M) Juergan earki!
- (E) Nik kotxiakin biaje hori ez niyan ezautzen. Golea automobillian ez

hituan behin’e automobillia... zean juten len... len esan deten hortan, ermiarman. Errubera haundi batzuk zitun, txarreta txiki bat.
- (M) Geo hituan, bai, zea, For hayek. For hayek’e zeak hituan, altuak e... Bien! Ba, zituen txakur hoyek, eta kale hortan ibiltzen zian; ta txakurrak, berriz, beti bakizu, katuan ta zean, ta... Hor bazan Txan Pier bat, “Jean Pierre”, Juan Pedro izango zan noski, frantzesa zan ta, arotza, hemen bizi zana; ta ya alabak... semiak eta alabak eta izan zitun, ta arotza zan, eta...
- (E) Lutegi.
- (M) Ba, Xan Pier horrek... Bai, Lutegi abizena gaiñea, abizena hain juxtu Lutegi. Ba, txakur hoyetakuak segitu diyoe katuai, ta kale hortan, ba, Bixkonde kalia, Bixkonde kalen. Klaro, Narrosenetikan Bixkonde kalian zuzen-zuzen golea. Ta kale hortan segitu diyoe txakurrak katuai, ta hil due katu hori! Ta gue Txan Pier jaun horrek, “Duque de Granada” zan zea hoyen “Marqués de Narros” ta “Conde Realen” aita, hoyei pasa diyoe kontua, pasa diyo: “Por mátar al gato, rómper el plato, daños, perjuicios e indemnización: setenta y cinco pésetas”. Dukiak “ja!” parre in, ta klaro, halako zea polita, ezta kasoik’e harek. Ta jun dia Madrida, ta klaro, udaa pasa zanian, beste guztiyak bezela, Madridea jun dia gure duke hoyek eta; ta gure Xan Pier horrek berriz’e Madridea fatura: “Por mátar el gato… Por mátar el gato, rómper el plato, daños, perjuicios e indemización: setenta y cinco pésetas. Sitación al juzgao de Zarauz”. “Joño!”. Dukiak don Pedro orduan aministraore, don Pedro, zea, akordatzen al zeate don Pedro txiki hori? Nola zan ba...?
- (I) Bai, zerbait akordatu nauk...
- (M) Don Pedro ez al haiz akordatzen Aginagan...
- (E) Legarra!
- (M) Don Pedro Legarra!
- (I) Motx bat!
- (M) Bai, ba. Zartu in gaituk, eta ezin akordatu abizenak, eta […]. Eta gure Txan Pier horrek bota diyo, ba, ta dukiak: “Don Pedro, páquele usted inmediatamente”. Earki! Gure Txan Pierrek kobratu du hori, ardoz beteta juerga earra harrapatu bere katuan kontura, ta akaso motel, kobratu zun harek “por mátar al gato”…

7. Balea harrapatu zutenekoa

- **Erref**: ZAR-111/012
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:21:56. **Bukatu**: 00:23:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:
Balea harrapatu zuteneko abestia abesten du batek. Balea harrapatu zutenek ez zituzten kobratu anoak.

Transkripzioa
- (I) Milla ta zortziregun
Setentaiotxuan
Zarauztikan txalupa
Baletara juan.

Anton getariarra
Lagun hartu zuan
Gizon balientia
Hura zalakuan.
Hobe zuen Kaperok
Ikusi ez bazuan.

- (M) Gogoratzen naiz ni nere osabak eta... neuk ez nun ikusi, baiño... A! Ta gaiña, uste det ikusi nitula! Kontuak, balia zala ta ez zala, ta eraman zituen erraziyuak oraindikan ordaindu gabiak Pantolinguan... Bai! Goatzen naiz, ta hayek, klaro!... Gure osabak eta hil zian, eta ni oaindikan bizi naiz Jaunai eskerrak...
- (I) Kobratzeko lixto!
- (M) Baiño... bai! Neu kobratzeko lixto nao orduko erraziyuak!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com